

# URAREN ZIKLOA



**Uraren zikloa zer den jakiteko irakurri testua eta bideoa aztertu.**

**Uraren zikloa** urak pasatzen dituen fase desberdinen segida da:

- Lurrunketa: ura lurretik, itsasotik, ibaietatik eta abarretatik lurrundu egiten da beroaren eraginez, zerurantz igotzen da. Fase honetan, ur likidoa gas bihurtzen da.
- Kondentsazioa: lurruna, zerura igo ondoren, hoztu egiten da eta lurruna osatzen duten ur-partikula txikiak elkartzen hasten dira berriro, tanta txikiak osatuz. Hau da, ura gas-egoeratik likido-egoerara itzultzen da.
- Prezipitazioa: tanta horiek pisua hartzen dutenean, erori egiten dira lurrerantz, euri moduan edo, hotzaren eraginez, izotz edo elur moduan. Fase honetan ura egoera likidoan jarraitzen du edo egoera solidora aldatzen da.

Hiru fase horiek zirkularrak dira; hau da, prezipitazioen ondoren, ura berriro lurrera iristen denean, noizbait beroaren eraginez lurrundu egingo da, eta abar. Horregatik deitzen zaio uraren zikloa




**1.Osatu testu hau hitz bakoitza dagokion lekuan ipiniz.**

**............................ eraginez lur azaleko ura lurrundu eta zerurantz ........................... da. Ondoren, lurruna ............................da eta hodeietan ........................ txikiak sortzen dira. Tanta horiek pisua hartzen dutenean .................... edo .................... moduan lurrera erortzen dira.**

**euri beroaren tanta hozten elur igotzen**

LIVEWORKSHEETS

**2. Lotu esaldiak, irudian gertatzen den lekuarekin.**

- **Hodeiak sortzen dira.**

- **Ura itsasora bueltatzen da.**




- **Euria, elurra edo txingorra egiten du.**

- **Eguzkiaren beroak ura lurruntzen du.**

LIVEWORKSHEETS

## 3. Osatu irudia, hutsune bakoitzean dagokion informazioa erantsiz



| LURRUNDU | KONDENTSATU | SOLIDOTU | URTU |
|---|---|---|---|

Eguzkiak ura berotzen du eta parte bat lurrundu egiten da

Beroarekin mendietako elurra eta izotza urtu egiten da eta ura ibai eta itsoetara bueltatzen da

Tenperatura oso hotza denean, hodeietako euria solidotu egiten da, elurra edo txingorra sortuz

Ur lurruna kondentsatu egiten da eta hodeiak sortzen dira

LIVEWORKSHEETS

## 4. Beheran duzun informazioarekin, eskema osatu.




Ur-lurruna hozten denean kondentsatu egiten da: ur-tanta txikiak

Ur-tanta txikiak elkartu egiten dira eta tanta handiagoak sortzen dira.

Eguzkiak berotu egiten du itsaso, ibai eta aintziretako ura.

LIVEWORKSHEETS

## 5. Entzun abestia eta ondoren, testua osatu.

### "URA DA"




_______ berotasunak

itsasoko ura epeltzen duenean,

_______ sortu,

eta atmosferara igotzen da.

Behin atmosferan,

ur lurruna _______ egiten da.

Ur tanta bihurtu,eta _______ sortzen dira.

Ni naiz , zu zara, URA da, bizitzaren zikloa.

Gure iturburua.(BIS)

Hodeietako ur tantak, handitzen direnean,

_______ , _______ edo _______ moduan,

erortzen dira.

Mendi tontorreko elurra,

urtu eta _______ behera,

lur azpiko urarekin batera,

berriro doaz _______ .

Ni naiz , zu zara, URA da, bizitzaren _______

Gure iturburua. (...)

Itsasora hoztu euria txingorra zikloa elur ibaietan
ur lurruna hodeiak Eguzkiaren

LIVEWORKSHEETS

LIVEWORKSHEETS